



## **DERIOKO UDALA**

### **BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA HONAKO ZERBITZUA ESLEITZEKO: DERIOKO UDALEKO HAUR ETA GAZTE ZERBITZUA EUSKARAZ**

#### **1.- KONTRATUAREN XEDEA.**

Kontratuaren xedea hau da: Derioko Udaleko haur eta gazte zerbitzua euskaraz kudeaketa integrala. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta ondoan azaltzen diren definizio, ezaugarri eta helburuekin bat etorritik egingo da.

#### **2.- PROGRAMAREN DEFINIZIOA**

Derioko **haur zerbitzua eta Ludoteka** euskaraz gizarte- eta heziketa-aukera bat da aisialditan Derioko haur kolektiboarentzat, 4 eta 13 urte bitartekoentzat hain zuzen ere.

**Gazte-programa eta Gazte** gizarte-heziketa aukera bat da nerabe-gazte kolektiboarentzat, 14 urtetik 18 urtera bitartekoentzat hain zuzen ere.

Haur zerbitzuak eta gazte zerbitzuak gizarte-heziketa ildo bere daukate eta elkarren artean erlazionatuta ikusi behar dira euren berako definizioagatik, eta dinamizazio programa baten bidez jarduera integrala burutuko da, garapen pertsonala eta haur-gazte kolektiboaren gizarteratzea bultzatuz, hala nola, proiektuak eta inizatiba interesgarriak martxan jarri.

#### **3.- PROGRAMAREN OINARRIZKO HELBURUAK**

- Umeen eta gazteen arteko harremanak ahalbidetzeko elkarguneak, aisialdi eta jolas tokiak jartzea.
- Zentro dinamizatzaileak izatea, horiek hartuta horrelako kolektiboentzako jardueren programa espezifikokoak garatzea.
- Erabiltzaileei ohitura osasungarriak sustatzea euren aisian eta denbora librean eta baita balio pertsonal positiboak ere sustatzea.
- Herriko bizitza soziokulturalean umeen eta gazteen gizarterapena sustatzea, eta identitate sentimenduak eta autonomia pertsonala garatzea.
- Aisialdi eta astialdiko ekitaldietan euskararen erabilera bultzatzea, eta txikien artean ohiko komunikazio tresna bezala.
- Sustatzea auto-antolaketa eta auto-kudeaketa norberaren jardueretan eta ekimenetan, gazte kolektiboan bereziki
- Aukera-berdintasuna bultzatzea zeharkako helburu guztietan eta planteatzen diren ekintza guztietan.
- Sustatzea bizikidetzako baloreak, berdintasuneko baloreak, kultura-artekotasuneko baloreak eta ingurumenarekiko errespetua.
- Sustatzea ingelesaren erabilera ekitaldi puntualetan



## **DERIOKO UDALA**

- Familiei aukera ematea, familia- eta lan-bizitza bateratu ahal izateko.

### **4.- METODOLOGIA**

Proposatuko den lan metodologia izango da honako kontzeptu psikopedagogiko hauei jarraituz: dibertsioa, jarduera, partaidetza, pertsonalizazioa, kreatibitatea, osotasuna, ikuspegi kritikoa, aniztasuna eta ezberdinei arreta

Gainera, zeharkakotasunez honako balore metodologiko hauek kontuan hartuko dira: aukeratzeko berdintasuna, kultura-aniztasuna, euskara erabili eta sustatu, ingurumenaren gaineko heziketa eta bizikidetzarako hezkuntza.

### **5.-NORENTZAT**

Zerbitzua 4 urtetik 18 urtera bitartekoentzat zuzenduta dago. Erreferentzi gisa 2017-18 ikasturteko hartzaileak dira:

- TXIKIAK: 2013-2011 urteetan jaiok
- ERTAINAK: 2010-2008 urteetan jaiok
- HELDUAK: 2007-2004 urteetan jaiok
- GAZTE: 2003-1999 urteetan jaiok

Nolanahi ere, bestelako adin ezberdinentzat ere ireki ahal da, baldin eta Derioko Udalak horrela eskatzen badu.

Aforoa gaintzen bada edo eskariei arreta emateko giza baliabide gehiago behar badira, enpresak kudeaketa-ereduak eskatuko dizkio Derioko Udalari, eta kudeaketa-eredu horiek bermatuko dute zerbitzuaren funtzionamendu egokia.

Programa bereziak, irteerak eta txangoak erabiltzaileek ordainduko dituzte Udalak jarritako prezioen arabera.

### **6.-KOKAPENA**

**Ludoteka** dago Larrabarri baserriko beheko solairuan; honela definitzen da: aisialdi-heziketarako eremua, Derioko umeei toki erabilgarri eduki dezaten eta denbora elkarrekin egoteko, harremanak izateko, partaidetzarako, jolasteko eta olgetako. Bertan, **200 pertsona sartzen dira gehienez**, xehetasun honekin:

- Txikientzako aretoa: 51
- Ertaintzako aretoa: 38
- Ludo-txiki aretoa: 17
- Estalitako areto nagusia ekitaldi ezberdinentzat: 94



## **DERIOKO UDALA**

**Gazte zentroa** Besaide plazan dago, honela definitzen da: aisialdi-kulturako eremua, gazteek eta nerabeek toki erabilgarri izan dezaten eta denbora elkarrekin egoteko, harremanak izateko, partaidetzarako, jolasteko eta olgetako. Tokiaren edukiera da **49 pertsona**.

Ludoteka eta Gazte tokiek ekipamendua daukate erabiltzaileen interesei erantzuna emateko dinamizazio programa baten bidez.

Bisitak erraztuko zaie horrela eskatzen duten enpresei.

### **7.- PROGRAMEN DESKRIPZIOA, EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA**

Ezarritako ordutegiak eta egutegiak aldatu ahal izango dira Udalak horrela eskatzen badu zerbitzuaren betebeharren arabera.

Bai Ludotekan bai Gazten sarrera libre eta doan izango da zerbitzuaren hartzaileentzat baldin eta zerbitzu horretara hurbiltzen badira. Sarrera bakarrik mugatuko da funtzionamenduko eta bizikidetzako arauak errespetatzen ez direnean eta lokalaren aforoa beteta dagoenean. Koordinatzailek erabiltzaileen erregistroa eta horien heziketa-segimendua egingo dituzte.

#### ***I. OINARRIZKO ZERBITZUA***

##### **LUDOTEKA eta LUDO-TXIKI**

- **LUDOTEKA:** Zerbitzua garatzeko eta hartzaileen egoerara egokitzeko adineko 3 talde jartzen dira. - 18 ikasturterako honako taldeak jarri dira:

- Txikiak: 2013-2011 urteetan jaioak
- Ertainak: 2010- 2008 urteetan jaioak
- Helduak: 2007-2004 urteetan jaioak

Zerbitzu honek ez du matrikulaziorik behar (sarrera libre edukiera bete arte)

Hasierako data: urriaren 1ean edo lehengo lanegunean zapatua edo domeka bada.

Amaierako data: ekainaren 15ean edo aurreko lanegunean asteburua bada.

Txikiak eta ertainak: asistentzia, gutxi gorabehera 30 lagun (txikiak) eta 17 lagun (ertainak).

- Derioko Herri Ikastetxeko ordutegia: 16:00etatik 19:00etara. (sarrera libre edukiera bete arte),
- Laneguneko ordutegia eta Derioko Herri Ikastetxeko ez den ordutegia: 10:00etatik 13:00etara. (jarduera izan aurretik matrikula egin behar sartzeko).

Helduak: (asistentzia, gutxi gorabehera 45 lagun). Larrabarri baserriko areto batzuk erabiliko dira:

- Barikuak, 17:30etik 21:00etara.

***Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares que debe regir la adjudicación del Servicio Infantil y Juvenil en euskera de Derio***



## **DERIOKO UDALA**

- Zapatuak, 16:30etik 20:00etara. (21 saio, azaroaren lehenengo asteburutik aurrera)

- **LUDO-TXIKI:** Ludotekaren alboko lokalean jolas areto bat dago 2 eta 4 urte bitarteko umeak euren gurasoekin batera jokora has daitezten. Zerbitzu hau irekitzeko ordutegia enpresa esleitzzaileak jarriko du Ludotekako ordutegiarekin bat etorritz. Ordutegi horretan zerbitzuari esleitutako pertsonala gela irekitzeaz eta ixteaz arduratuko da.

Areto horretan ez da begiralerik behar. Areto horretan Udalak jarritako funtzionamendu-arauak errespetatu beharko dira, eta gurasoek pertsonalki kudeatu ahal izango dute.

Esleitzzaileak areto hori beharrezko materialekin hornitu beharko du jarduera garatzeko, aretoko altzarien hornidura Udalaren kompetentzia izanez.

Ludo-txiki zerbitzua doan izango da, eta Derioko edonork erabil dezake, beti ere dalak jarriko dituen funtzionamendu arauak errespetatuz.

### **GAZTE**

14 urtetik 18 urtera bitartekoentzako (2017-18 ikasturteko ikasleentzako) zerbitzua funtzionatuko da ordutegi honetan, 18:00etatik 21:00etara, ostegunetik igandera irailaren azken asteburutik ekainaren azken asteburura (bataz besteko asistentzia, 10 pertsona ostegunetan eta 35 pertsona ostiral, larunbat eta igandeetan).

## **II. PROGRAMA BEREZIAK GABONETAN ETA ASTE SANTUAN**

Programa hauetan parte hartzeko aurreko matrikula egin behar da.

**TXIKIAK ETA ERTAINAK:** Gabonetako eta Aste Santuko oporretan 3 eguneko programa emango da, aurretik matrikula egin behar, programan txangoak, jokoak eta tailerrak egongo dira. Jarduerak izango duen eskaeraren arabera bikoiztuko da oporretako lehenengoa astean eta bigarren astean. Erabiltzaileek txanda bat aukeratuko dute. Ordutegia honakoa izango da: 10:00etatik 13:00etara

**Helduak:** Erabiltzaile guztientzat, talde batean, oporraldi bakoitzean (Gabonak eta Aste Santua) 3 eguneko programa bat eskainiko da, arratsaldean. Programan egongo dira jokoak, txapelketak, tailerrak, jaiak eta txangoak.

### **Gazte:**

Gabonak: lokala irekiko da programa berezi batekin 18:00etatik 21:00etara eta 12:00etatik 14:00etara, eskola oporretako aste biak, jai egunak izan ezik. (bataz besteko asistentzia 35 pertsona).

Aste Santua: lokala irekiko da programa bereziarekin pazkoko astearte, asteazken eta ostegunak, 18:00etatik 21:00etara eta 12:00etatik 14:00etara, eta asteburuetan ohiko programa egongo da. (bataz besteko asistentzia 35 pertsona).

***Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares que debe regir la adjudicación del Servicio Infantil y Juvenil en euskera de Derio***



## **DERIOKO UDALA**

### **III. UDALEKUAK**

#### **1. UMEAK (4 urtetik 14 urtera)**

##### **EGUNAK/ORDUAK**

Udalekuak egongo dira ekainaren azken asteburutik, 4 astekoak izango dira. Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara.

##### **KOKAPENA**

Martxan jartzeko honako lokalak erabiliko dira: Derioko Herri Ikastetxea, Kiroldegia, Institutua eta Kultur Birika.

##### **NORENTZAT**

Erabiltzaileak 4 urtetik 14 urtera bitarteko neska-mutilak izango dira, eta Derioko herrian erroldatuak edo Derioko herriarekin lortura dutenak.

-Txikien taldea: 4 urtetik 6 urtera bitarteko umeak

-Ertainen taldea: 7 urtetik 9 urtera bitarteko umeak

-Helduen taldea: 10 urtetik 14 urtera bitarteko umeak

##### **EKITALDIK ETA PROGRAMAZIOA**

Enpresa esleitzzaileak programazio bat aurkeztuko du honako datuak kontuan hartuta:

10:00-13:00 bitarteko jardunaldian zehar programa zehatza egingo da talde bakoitzarekin. Astean behin txango bat egingo da, astean behin jarduerak ingelesez, distentsio jolasak, kirol jolasak, igerilekua, tailerrak, joko hezigarriak taldeka.. Ertainen taldeak horretaz gain pijama gaua ere izango du. Helduen taldeak horretaz gain 5 eguneko irteera ere izango dute.

##### **BEGIRALEEN PREMIAK**

Estimazio bat proposatzen da, hala ere, matrikulazio kanpaina egin ondoren inskribatuko diren pertsonen kopuruaren arabera izango da behin betiko faktura.

Txikiak: (matrikularen estimazioa 110)

(Begiraleen kopurua: begirale 1 x 11 ume)

Ertainak: (matrikularen estimazioa 104)

(Begiraleen kopurua: begirale 1 x 13 ume)

Helduak: (matrikularen estimazioa 105)

*Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares que debe regir la adjudicación del Servicio Infantil y Juvenil en euskera de Derio*



## **DERIOKO UDALA**

(Begiraleen kopurua: begirale 1 x 15 ume)

### **2. GAZTE (14 urtetik 18 urtera)**

Udalekuen programa Gazteentzat: 4 aste, ekainaren azken astetik aurrera, ordutegi honekin, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara lan egunetan (bataz besteko asistentzia 35 pertsona). Programazio berezia: egun bateko 3 irteera eta 5 eguneko irteera bat.

Uztailaren azken astean ekitaldi bereziak programatuko dira zerbitzua hedatzeko Ludotekako helduen zerbitzuan adskribatuta egon eta irailetik aurrera Gazte zerbitzua erabiltzen hasiko direnentzat.

#### **IV. *BESTE ZERBITZU BATZUK***

4 urtetik 11 urtera bitartekoa izan eta matrikulazioa behar duten programen erabiltzaileentzat, Udalekua barne, 2 saioko haurtzaindegia egongo da:

- 1., 8:30etik 10:00etara.
- 2., 13:00etatik 14:30era.

Osagarri gisa ordu poltsa bat jartzen da jarduera berezientzat, haur-gazte kolektiboa osatzeko Udalak sustatuko dituen ospakizunetan, jaietan, ekitaldi kulturaletan eta kirol ekitaldietan erabiltzeko, edo beste herritan horrelakoak egon eta Udalak interesgarri hartzen dituenean. Enpresak horiek egin ditzake baldin eta Udalaren on iritzia badauka, edo Udalak berak eskatzen baditu.

Programa bereziak eta Udalekuak proposatzen dira begiraleen ordu estimatu batekin. Ordu horien estimazioa irmoa izango da matrikulazio kanpainak egin ondoren, eta fakturatzeko prezioak bat egongo du behin betiko programarekin, inskripzioaren arabera.

Estimatutako ordu guztiak:

- Udalekuak: 2.500 ordu.
- Beste gehigarri batzuk: 400 ordu

### **8.- BALIABIDE FISIKOAK**

Lokalak dira KOKAPEN paragrafoan adierazitakoak eta horiek oinarrizko materiala daukate. Funtzionamendu eta mantenamendurako gastuak (ura, garbiketa, argia) Udalaren kontura izango dira. Esleipendunak instalazioak eta utzitako materiala egoera onean mantendu beharko ditu eta horretarako neurriak finkatuko ditu. Ludotekan kalteak izanez gero, berehala kultura arloko arduradunari abisatuko zaio bai telefonoz bai posta elektronikoz, ahalik eta denbora laburrenean.

### **9.- PROGRAMAZIOAN SARTUKO DIREN MATERIALAK ETA EKITALDIAK**

*Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares que debe regir la adjudicación del Servicio Infantil y Juvenil en euskera de Derio*



## **DERIOKO UDALA**

- Material fungiblea: kartoi meheak, oihalak, pinturak, paper orriak eta antzekoak.
- Material berriztagarria: jolasak, jolas elektronikoak eta antzekoak
- Inprimatzea kartelak, liburuxkak, komunikazio-orriak eta antzekoak.
- Sarrerak erostea Gabonetan, Aste Santuan, Udalekuetan eta abarretan programa bereziek eskatuta.
- Ekitaldiak kontratatzea programazioan sartzeko: Haur edo gazte ikuskizunak, tailer bereziak, zinema edo antzekoak, zerbitzuak eskatuta.

Atal honetan adierazten diren gastuentzat edo atal honetan adierazita ez egon arren baina zerbitzurako interesgarriak badira eta Udalak horrelakotzat hartuz gero, enpresa esleipendunak, gutxienez, urtean 21.500€-ko diru kopurua erabilgarri izan beharko du, eta erakunde sustatzailearen aurrean justifikatu beharko du.

## **10.- LANGILEAK**

Lehentasuna emango zaio sexu biak dituen ekipoari, ohiko harremanak gauzatzeko maskulino -femenino identifikazio positibo ereduatan oinarritua.

Langileen ohiko hizkuntza eta hizkuntza nagusia euskara izango da, bai antolatutako jardueretan bai harremanetan lokaleko erabiltzaileekin. Beraz, langileak gai izan beharko dira beren eginkizunetan bi hizkuntza ofizialetan egiteko.

Zerbitzu honek iraunkortasunaren gogoia dauka, eskainiko diren programak edozein direlarik, horrexegatik, "oinarrizko taldea" izango du, azpikontratatu ahal dena. Oinarrizko taldea honela eratuko da:

1. Bi **koordinatzaile**. Horiek lan egingo dute haur eta gazteei arreta ordutegian begiraleekin, zuzen txikiekin, hori horrela, begirale/ume ratioarekin konputatuz.

Gaztelekuko koordinatzailea: 1.274 ordu.

- Ordu presentzialak, 955: 5 saio astean 3,5 ordukoak. (4 ordu Gaztelekun eta ordu 1 Ludotekan), laguntza emateko Gabonetan, Aste Santuan, Udalekuak direnean, ekitaldietan laguntza, txangoetan, bidaietan eta zerbitzuarekin lotuta dagoen antzeko beste bat.
- Koordinatzeko orduak, 319 (lanaldiaren %25a): koordinazioa (bilerak eta elkarrizketak enprekin eta Udalarekin), informazioa (bloga eta webgunea eguneratzea, informazioa prestatzea hileroko pdf-era, kanpainen informazioa, komunikazioak erabiltzaileei eta familiei, datuen tratamendua) eta kudeaketa (programazioa, prestaketa eta erosketak, txostenak eta ebaluazioak) eta zerbitzuarekin zer ikusi duten antzekoak.

Ludotekako koordinatzailea: 1.553 ordu.

***Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares que debe regir la adjudicación del Servicio Infantil y Juvenil en euskera de Derio***



## **DERIOKO UDALA**

- Ordu presentzialak, 955: 5 saio astean 3, 5 ordukoak., 14 larunbatetan 3,5 ordu; laguntza emateko Gabonetan, Aste Santuan, Udalekuak direnean, ikasturteko aste lanegunetan, laguntza ekitaldietan, txangoetan eta bidaietan eta eta zerbitzuarekin lotuta dagoen antzeko beste bat.
- Ordu presentzialak familiei arreta emateko eta matrikulazio kanpainak egiteko: 120 ordu urtean. Ordu horiek ikasturtea hasten denean finkatuko dira modu presentzian inakripzioak egiteko, kontsultak egiteko, matrikulak egiteko eta familiekin elkarrizketak egiteko. 90 ordu gehiago jartzen dira matrikulazio kanpainan laguntza emateko.
- Orduak barne lanak egiteko, 388 ordu (lanaldiaren %25a): koordinazioa (bilerak eta elkarrizketak enpresekin eta Udalarekin), informazioa (bloga eta webgunea eguneratzea, informazioa prestatzea hileroko pdf-era, kanpainen informazioa, komunikazioak erabiltzaileei eta familiei, datuen tratamendua) eta kudeaketa (programazioa, prestaketa eta erosketak, txostenak eta ebaluazioak) eta zerbitzuarekin zer ikusi duten antzekoak.
- 

### **2. Hiru begirale**

Gaztelekuko begiralea: 981 ordu.

- Ordu presentzialak, 921: 5 saio astean 3, 5 ordukoak. (3 ordu Gaztelekun eta 2 ordu Ludotekan), laguntza emateko Gabonetan, Aste Santuan, Udalekuak direnean, ikasturteko aste lanegunetan, laguntza ekitaldietan, txangoetan eta bidaietan, eta eta zerbitzuarekin lotuta dagoen antzeko beste bat.
- Orduak barne lanak egiteko, 60 ordu (lanaldiaren %6a jornada): bilerak egiteko, materialak prestatzeko eta zerbitzuarekin lotuta dauden antzekoak prestatzeko.

Gaztelekuko begiralea: 981 ordu.

- Ordu presentzialak, 921: 5 saio astean, 3, 5 ordukoak. Laguntza emateko Gabonetan, Aste Santuan, Udalekuak direnean, ikastorduetatik kanpoko lanegunetan ikasturtean zehar (haurtzaindegia barne), 14 larunbat azarotik apirilera arte, 3,5 ordukoak, laguntza emateko ekitaldiei eta txangoei eta eta zerbitzuarekin lotuta dagoen antzeko beste bat.
- 
- Orduak barne lanak egiteko, 60 (lanaldiaren %6a): bilerak, materialak prestatzeko eta zerbitzuarekin lotuta dauden antzekoak prestatzeko.





## **DERIOKO UDALA**

Aurreikusten diren aparteko orduak erabiliko dira begirale laguntzaileak kontratatzeko, horiek laguntza emango diote oinarrizko taldeari matrikulazio kanpainetan sortutako eskariak oinarrizko taldearen arreta-ahalmena gainditzen duenean. Aparte fakturatuko dira eta Udalak gastua onartzen duenean (kanpaina bereziak, Udalekuak...)

Zerbitzua oinarrizko taldeak burutuko du nagusiki, eta aparteko orduen aurrekontua proposatuko da, bakar-bakarrik, erabiltzeen kopuruak behar duenean.

Begirale guztiek Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren Ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, delitu horientatik zigorrik jaso ez duela egiaztatzen duena.

### **LANGILEEN FUNTZIOAK**

#### **Begirale koordinatzaileen funtzioak**

Begirale koordinatzaileak ume eta gazteei arretan daudenean begirale gisa arituko dira umeekin zuzenean; beraz, honela konputatuko da: begirale/ume. Bestelako koordinazio lanak egingo dira ordutegi honetatik kanpo.

- Inskripzioak zerbitzuari eta erabiltzaileei segimendua.
- Matrikulazioa behar duten programei inskripzioak, inprimakiak, komunikazioak paperetan edo komunikazio informatikoak, datuen kudeaketa, familien kontsultak eta Udalak ezarritako prezioak kobratzea, zerrendak, jakinarazpenak bidaltzea, ordainketak kontrolatzea
- Jarduerak eta ekipoak koordinatzea, esleipendun enpresaren jarraibideak kontuan hartuta
- Eguneroko ebaluazio-fitxak betetzea eta jarduerak egiten direnean sortutako gorabeheren berri ematea.
- Antolaketa, girotzea, zentroak eta euren baliabideak dinamizatzea, ekipamendua eta materiala zaintzea.
- Arreta eta informazioa banaka zerbitzua erabiltzen duten umeen eta gazteen erantzuleei haien eboluzioari buruz, baldin eta hori eskatzen badute.
- Aurrekontuak eskatzea, material fungiblea erosi eta berriz jartzea, eta jarduerak gauzatzeko kudeaketak egitea eta ordaintzea.
- Presentzia eta programak martxan jartzea esleipendun enpresak markatutako jarraibideak kontuan hartuta.
- Tokia kontserbatzea, antolatzea eta mantentzea.
- Programa zehatzak antolatzea esleipendun enpresak jarritako oharrak jarraituz.
- Ludotxiki gela kontrolatzea: irekitzea, ixtea eta familien funtzionamendua kontrolatzea gela hori erabiltzen dutenean.
- Egindako jardueren ebaluazioa.
- Zerbitzua irekitzea eta ixtea.
- Zentroak eta euren jarduerak informatzea eta zabalkunde egitea, umeak eta gazteak animatuz parte har dezaten: webgunea sortzea eta mantentzea,



## **DERIOKO UDALA**

hileroko pdf elaboratzea zerbitzuaren jarduerekin, blogak, abisuak telefonoz edo beste euskarri batzuk erabiliz eta sor daitezkeen programak.

- Bidaltzea eta jakinaraztea Udalari zentroak mantentzeko, garbiketa egokia izateko eta berokuntzarako.
- Aipatutako guztiaz gain, zehaztuko diren antzeko kategoriako guztiak.

### **Begiraleen oinarritzko funtzioak**

- Presentzia eta programak martxan jartzea enpresak eta koordinatzaileek markatutako jarraibideak kontuan hartuta.
- Tokia kontserbatzea, antolatzea eta mantentzea.
- Programa zehatzak antolatzea enpresak eta koordinatzaileak jarritako oharrak jarraituz..
- Egindako jardueren ebaluazioa.
- Arreta pertsonalizatua erabiltzaileei.
- Arreta pertsonalizatua erabiltzeen arduradunei.
- Zerbitzua irekitzea eta ixtea
- Aipatutako guztiaz gain, zehaztuko diren antzeko kategoriako guztiak.

### **BEGIRALE – KOORDINATZAILEARENTZAKO BETEKIZUNAK:**

- Titulazioa: Astialdiko Zuzendaria eta erdi mailako unibertsitate titulua (magisteritza, gizarte hezkuntza, haur hezkuntza...) gizarte-hezkuntza arloarekin lotuta.
- Arlo honetan esperientzia aitortua edukitzea, hau da, umeen eta gazteen animazioan lan egin izana, gutxienez, bi urte.
- Jakitea informatika, blog eta web diseinua eta Officea.
- Ingelesa jakitea.
- EGA edo baliokidea
- 

### **BEGIRALEEN BETEKIZUNAK:**

- Titulazioa: Astialdiko begiralea eta gizarteratze erdi mailako modulua edo animazio soziokulturala.
- Arlo honetan esperientzia aitortua edukitzea, hau da, umeen eta gazteen programetan begirale gisa lan egin izana, gutxienez, urte bat.
- Premia bereziak eta laguntza espezifikoak behar dituzten umei arreta emateko martxan jarri behar dira enpresak esaten duena, eta beharrezkoa denean, begirale horiei osagarritzko formakuntza eman behar die.
- Ingelesa jakitea.
- EGA edo baliokidea



## **DERIOKO UDALA**

Langile guztiak 19 urtetik gorakoak izan beharko dira, eta langileek euskarari gai izan beharko dute zerbitzua egiteko.

### **11.- ENPRESAREN BETEKIZUN OROKORRAK**

Erantzukizun zibileko eta istripuko aseguruia edukitzea, garatuko den proiektuarekin eta jarduera bereziekin bat etorritik.

- Lan Arriskuen Prebentzioko Plana ezarrita duela frogatzen duen agiria.

### **12.- ENPRESAREN BETEBEHARRAK ZERBITZUA KUDEATZEKO ETA KANPAINAK ETA PROGRAMAK MARTXAN JARTZEKO**

Enpresaren kontura izango dira: zerbitzuen koordinazioa eta dinamizazioa, programa-jarduerak martxan jartzea, garatzea eta ebaluatzea lehiaketa honetan onartutako proiektuaren arabera eta, kasuan denean, Udalak jarritako jarraibideen arabera.

Enpresak begiraleak baterako hezkuntzak prestatuko ditu programazioak behar dituen espezifikazioetan, eta bermatzailea izango da lan taldeen funtzionamenduan.

Begiraleei baterako hezkuntzan formakuntza emango zaie, euren eguneroko lanean generoaren ikuspegiarekin bat egiteko.

#### Kanpaina bereziak:

- 1.- Udalarari behar besteko aurrerapenaz aurre-proiektu bat aurkeztuko zaio onartzeko.
- 2.- Matrikulazio kanpaina bat egingo da, eta behin betiko proiektua Udalarari entregatuko zaio inskripzio kopuruarekin eta aurrekontuarekin batera, begirale gehiago behar izanez gero.
- 3.-Martxan jarrita dagoen jarduera garatzea eta ebaluatzea.

#### Ebaluatzeak:

Ebaluazioak egiteko adierazleak zehaztuko dira.

Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko ebaluazioak entregatuko dira hilero, horietan adierazita: asistentzia datuak, egindako jardueren balorazioa, erabiltzaileen asetze datuak. Datuak bilduko dira beti sexuka sexuka banatuta. Aldi berean, ikasturte osoaren balorazioa eta beste bat Udalekuen berariazko balorazioari buruz.

### **12.- ENPRESAREN BETEBEHAR FINANTZARIOAK**

- Zerbitzuaren funtzionamendu orokorrari dagozkion gastuak fakturatuko ditu enpresak hilero.
- Kontratuan sartutako aparteko orduak fakturatuko dira Udalak oniritzia eman ondoren matrikulazio kanpainen arabera, eta kontzeptu ezberdinean.



## **DERIOKO UDALA**

- Fakturekin batera aurkeztuko ditu kontratatuta dituen langile guztien Gizarte Segurantzaren altako TCeak
- Ordaintzea zerbitzuaren garapenean parte hartzen duten hornitzaile guztiei, baldin eta Udalari zuzen ez bazaizkio fakturatzeko. (Garraioa eta jardueren kontratazioa Derioko Udalak ordainduko ditu, baldin eta programatik kanpokoak badira eta udalak bere interesengatik egitea erabakitzen bada)
- 5 eguneko irteerak ordainduko dira erabiltzaile-kopuruaren arabera kontzeptu hauetan: mantenua, ostatua, osagarritzko jarduerak. Horretarako esleipendun enpresak plaza bakoitzeko zenbateko bat eskatu eta horrekin zerbitzuaren hornitzaileen gastuak ordainduko ditu, dena den, Udalak aurretik onartuta egongo dira.
- Zerbitzuari arreta emateko urtean egin diren gastu guztiak. Enpresa esleitzzaileak materiala erosteko, osagarritzko ekitaldietarako eta antzekoak egiteko urteko gastuak banakatuta aurkeztuko ditu.
- Urteko inbentarioa eguneratzea.

### **ENPRESAREN BETEKIZUNAK PUBLIZITATEARI, KASU BEREZIEI ETA BESTELAKO JARDUEREI DAGOKIENEZ.**

Esleipendun enpresaren kontura izango dira zerbitzuen berri emateko kanpainak, eta baita hileroko pdf ere. Paperetan egingo dira eta postontzietan sartuko dira, eta euskarri informatikoan ere egingo dira, zerbitzuak irekitzeko, Udalekuak egiteko, eta Ludotekatik Gaztelekura pasatzen diren pertsonak gonbidatzeko. Gainerako informazioa (PDF hileroko eta beste komunikazio batzuk) argitaratuko dira webgunean eta sakelako telefono bidez edo antzekoak erabiliz. Publizitate honetan bermatuko da komunikazio ez sexista bai hizkuntzan bai irudietan.

Herriko 4 eta 18 urteren arteko biztanle guztiari bidaliko zaio, eta espezifikoki, lau adin-sektoreetako bakoitzari, ziurtatuz hedapena ahalik eta zabalena eta handiena dela. Halaber, enpresa esleitzzailearen kargura izango dira: zerbitzuko webgunearen eta blogaren diseinua eta mantenamendua, kartelak, familiekin eta zerbitzuaren erabiltzaileekin komunikazioa eta publizitatearekin lotuta dauden antzekoak.

Enpresa esleipendunak, zerbitzu bakoitzerako, "user responsive" web plataforma eduki beharko du, hau da, auto-moldagarria kanal ezberdinetara (mugikorrek, tabletak, eta ordenagailuak...) elebiduna, zerbitzurako behar den informazioa guztia behar bezala eguneratuta dagoela ohartuz. Webgune hori modu librean egin daiteke, baina, Derioko Udalaren oniritzia eduki beharko du ustiatu aurretik, bai estetika aldetik (udalaren antzekoa izan beharko da) bai erabilgarritasun eta funtzionaltasun aldetik. Erabiliko den domeinua .eus izango da batez ere, eta testu intuitiboa izango du, zerbitzua zehazten duen hitzak (ludoteka, gazte, ...) + "derio" edukiz. Derioko Udalak eskatuko dituen sarrera estatistikak eta erabileren estatistika eskaini beharko ditu esleipendunak, sei hilean gutxienez eta zabalduetako ekitaldi bakoitzerako.



## **DERIOKO UDALA**

Esleipendun enpresak, sistematikoki eta finkatutako aldizkakotasunarekin, eman beharko ditu informazioa eta datuak ustiapenari buruz, profilei buruz eta aipagarria den zerbitzuaren erabilerari buruz, zerbitzua behar bezala egiten den ikustatzeko, eta/edo, aldaketa sartzeko, baldin eta eskarian aldaketak ohartu eta sar badaitezke.

Haur populazioa aberatsa eta anitza da aisialdia gozatzeari dagokionean, eta baita oinarrizko gizarte-heziketarako betebeharretan. Minusbaliotasun fisiko zein intelektual zein zentzumenezkoa duten umeek behar adineko baliabideak eduki behar dituzte aisialdia izateko taldeka. Kasu horientzat, enpresak jarduera-protokolo berezi bat prestatuko du horrela eskatzen dutenentzat. Horrelako eskatzaileekin helburua da giza baliabideak eta materialak ematea zerbitzuaren eskaintzan sartu ahal izateko.

Horrela betetzen dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan bildutako printzipioak, eta Euskal Herriko Mendekotasunari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoa. Behar denean enpresak jarduera protokoloak Udalaren eskura jarri beharko ditu, heziketa sistemaren tratamendua kontuan hartuta, eta ahal den neurrian, mendekotasunean bizi diren pertsonak proiektuan sartzea. Beharrezkoa izanez gero, begiraleei formakuntza emango die protokoloan adierazitako behar zehatzei erantzuna emateko. Balizko zerbitzu hau kontratuaren prezio barruan dagoela ulertuko da.

Udalak eskatzen duenean enpresaren kontura izango dira egintzak gizarte-heziketa arloan bai umeentzat bai gazteentzat.

### **FUNTZIONAMENDUA KONTROLATZEA.**

Zerbitzuaren segimendua egingo da zerbitzu-proposamenean zehaztuko diren egintzen bidez. Esleipendunaren teknikariaz gain Udalaren arduraduna izango da.

Era berean, proposatutako ebaluazio-sistema zehaztuko da, jasota edukiz bai zerbitzuen erabiltzaileak bai beren tutoreak. Adin gabekoak direla-eta, tutoreak izango dira zerbitzuaren hartzaile diren familiak.

Jarduteko protokoloek erabiltzaileen eta familien asebetetze-inkestak jasoko dituzte.

Bertan jasoko dira: eguneroko kontrol-fitxak, asteroko kontrol-fitxak eta hileroko kontrol-fitxak, eta baita familiek zein erabiltzaileek bete behar duten zerbitzuaren balorazio-ereduak ere.

Txosten bat entregatuko da hileroko, honakoak jasoz: balorazioa, asistentziak, gorabeherak, programazioaren balorazioa, ikastaro osoaren ebaluazioa eta aparteko kontratazioa behar duten programen ebaluazio zehatza.

### **PROIEKTUA.**

*Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares que debe regir la adjudicación del Servicio Infantil y Juvenil en euskera de Derio*



## **DERIOKO UDALA**

Enpresa esleipenduna behartuta dago lehiaketa honetan aurkezten duen proiektua martxan jartzeko bere ezaugarri guztiekin eta hobekuntza guztiekin.

Derioko Udalak beretzat gordetzen du proposamenen bat edo zehapenen bat aldatzeko edo kentzeko eskubidea, horrela egoki uste badu proposamena balioztatu ondoren.